

ERABILERA-ESKULIBURUA

NAFARROAKO TURISMO ERREGISTROKO DATUAK IKUSI ETA EGUNERATZEA

ZER DA?

Nafarroako Turismo Erregistroko datuak ikusi eta eguneratzea da tramite digital berri bat, Nafarroako Gobernuako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarena. Helburua da Nafarroako Turismo Erregistroan (aurrerantzean, NTE) inskribatutako turismo-jardueren titularrei aukera ematea ikusteko eta eguneratzeko NTEn jasoak dauden publizitaterako eta harremanetarako datuak.

Era berean, aukera ematen du, modu erraz eta azkarrean, titularrek beren datuak eguneratuta edukitzeko NTEren datu-baseetan, betebeharrak hori baitute indarrean dagoen turismo-araudiaren arabera. **Gogoan izan sartu beharra duzula gutxienez ere urtean behin eta, halaber, harremanetarako zure datuak aldatzen diren bakoitzean.**

NORENTZAT DA?

Izapide horretarako sarbidea izanen dute bakarrik NTEn inskribatutako turismo-jardueren (enpresa, establezimendu eta elkarteak) titularrek.

Zure jarduera oraindik ez badago inskribatua, eskaera tramitatu dezakezu esteka honen bidez: [Nafarroako Turismo Erregistroa](#). Dena den, lehenbizi begiratu ongi zein diren aurretik bete beharreko pausoak, inplikazioak eta baldintzak; horiek esteka horretako ataletan aurkituko dituzu, batez ere aurretik egin beharreko tramiteen gidan.

ZER ESKAINTZEN DIT?

Tramite horren bidez, erraz eta doan egiten ahal dituzu honako hauek:

✓ Gaur egun NTEn inskribatuta dauden **zure turismo-jarduerari buruzko datuak ikusi**.

✓ Telematikoki **eguneratu** datu hauek:

- **Turismo-jarduerarekin harremanetan jartzeko datuak:** posta elektronikoa, telefonoa eta webgunea.
- **Titularrarekin harremanetan jartzeko datuak:** helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa.

Beste datu batzuk aldatzeko (hala nola titularrak, izen komertziala, edukiera, kategoria edo modalitatea, etab.) [Nafarroako Turismo Erregistroaren](#) bidez tramitatu behar duzu.

Horri esker:

- Datu horiek automatikoki eguneratuko dira www.turismonavarra.es plataforman.
 - Zure turismo-enpresari edo-establezimenduari buruzko informazioa kalitate hobekoa izanen da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren publizitate-euskarrietan, hala nola sustapen-atarian, gailu mugikorretarako aplikazioetan, liburuxketan eta abarretan.
 - Zure bezeroak modu seguru eta eraginkorrean jarriko dira harremanetan zure enpresarekin.
 - Zure komunikazioak optimizatuko dituzu eta zure negozioarako baliagarria den informazioa jasoko duzu.
- ✓ Titularrak emandako datuetan oinarritutako **txostena ikusi eta deskargatu**; datu horiek inskripzioaren unean edo hurrengo aldaketak egitean emandakoak dira.
- ✓ **Zuzenean sartu NTEren administrazio-prozedura** garrantzitsuenetan.


GOGOAN IZAN...

Emandako datuen gaineko erantzukizuna horiek eman zituen enpresa edo entitate turistikoarena da bakar-bakarrik, eta Nafarroako Gobernuak ez du horretan inolako zama, erru, obligazio edo konpromisorik.

NOLA SARTZEN AHAL NAIZ?

Sartzea erraza da, ez baita beharrezkoa erabiltzaile gisa erregistratzea, ezta aplikaziorik deskargatzea ere; esteka honen bidez sartzen da:

Nafarroako Turismo Erregistroko datuak ikusi eta eguneratzea



Sakatu “tramitatu” eta autentifikazio-sisteman sartuko zara. Kudeaketa segurua eta konfidentziala dela bermatzeko, identifikazio-metodo hauetako baten bidez egin behar dira tramite elektronikoak:

- Ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa.
- CLAVE sistema.

NOLA IKUSTEN AHAL DITUT NIRE JARDUERA TURISTIKOAREN DATUAK?

Behin tramite digitalaren barrena sartuta, interfazearen hizkuntza aukeratzen ahal da: euskara edo gaztelania.

Segidan, agertzen da titularraren izenean dauden jardura turistikoaren zerrenda osoa, edozein dela ere modalitatea: ostatuak, bitartekaritza turistikoa, entitate eta elkarteak, jatetxeak edo zerbitzu turistikoak.

The screenshot shows the 'Ikusi zure jardura turistikoaren datuak' page. It includes a table with columns: Jardura turistikoaren izena, Modalitatea, Herria, Kalea, and Ataria. A blue arrow points to the 'HIZKUNTZA' button.

Jardura turistikoaren izena	Modalitatea	Herria	Kalea	Ataria
Ático Pamplona	Apartamento Turístico	Pamplona	Errota	8
Bodega Prueba 20210209	Bodegas	Albáiger	calle	1
Landaetxea	Casa rural vivienda	Roncail	Mayor	100
NavarraLand	Empresas de Turismo Activo y Cultural	Puente la Reina	Alto	5
Pamplona Centro	Apartamento Turístico	Pamplona	Pamplona	100

NOLA EGUNERATZEN AHAL DITUT NIRE HARREMANETARAKO DATUAK?

Jardueretako baten gainean klik egin behin, eta horren fitxara sartuko gara. Fitxa horretan, egin dezakegu edo balidatu, sartu bagara datuak NTERen datu-baseetan eguneratuta edukitzeko betebeharra betetzeko bakarrik, edo harremanetarako datuak eguneratu, izan titularrarenak nahiz jardura turistikoarenak.

Balidatu edo eguneratu jarduera turistikoarekin harremanetan jartzeko datuak

Bezeroak eta turistak harremanetan jartzeko datuak eguneratzeko aukera duzu: jardueraren web-orria, telefonoak eta/edo posta elektronikoa. Bai datuak aldatzen badituzu, bai oraingoak mantendu nahi badituzu, bukatzean egin klik “berretsi uneko datuak” botoian, sistemak gorde ditzan.

Jarduera turistikoaren fitxa

Landaetxea

Indirigizio kodea: UCR00000 Indirigizio data: 20/10/2020

Modaltasunak: 3 Erreleak

Kategoria: 3 Erreleak

Helbidea: Avenida Mayor 100 PK 31415 (Roncal)

Udalak: Roncal

Helbide elektronikoa: turismo.registro@navarra.es

1. telefonoa: 600600000 2. telefonoa: 948000000

Webgunea: www.landaetxearoncal.com

Jardueraren datuak berretsi



Jarduera turistikoaren fitxa

Landaetxea

Indirigizio kodea: UCR00000 Indirigizio data: 20/10/2020

Modaltasunak: 3 Erreleak

Kategoria: 3 Erreleak

Helbidea: Avenida Mayor 100 PK 31415 (Roncal)

Udalak: Roncal

Helbide elektronikoa: turismo.registro@navarra.es

1. telefonoa: 600600000 2. telefonoa: 948000000

Webgunea: www.landaetxearoncal.com

Jardueraren datuak berretsi

Balidatu edo eguneratu pertsona titularrarekin harremanetan jartzeko datuak

Titularraren datuak eguneratzeko aukera duzu: posta-helbidea, telefonoak eta/edo posta elektronikoa. Hor jasoko dituzu izapide honetako datuak eguneratu direla baieztatzeko mezuak. Bai datuak aldatzen badituzu, bai oraingoak mantendu nahi badituzu, bukatzean egin klik “berretsi uneko datuak” botoian, sistemak gorde ditzan.

Jarduera turistikoaren fitxa

Landaetxea

Indirigizio kodea: UCR00000 Indirigizio data: 20/10/2020

Modaltasunak: 3 Erreleak

Kategoria: 3 Erreleak

Helbidea: Avenida Mayor 100 PK 31415 (Roncal)

Udalak: Roncal

Helbide elektronikoa: turismo.registro@navarra.es

1. telefonoa: 600600000 2. telefonoa: 948000000

Webgunea: www.landaetxearoncal.com

Jardueraren datuak berretsi



Jarduera turistikoaren fitxa

Landaetxea

Indirigizio kodea: UCR00000 Indirigizio data: 20/10/2020

Modaltasunak: 3 Erreleak

Kategoria: 3 Erreleak

Helbidea: Avenida Mayor 100 PK 31415 (Roncal)

Udalak: Roncal

Helbide elektronikoa: turismo.registro@navarra.es

1. telefonoa: 600600000 2. telefonoa: 948000000

Webgunea: www.landaetxearoncal.com

Jardueraren datuak berretsi

Edozein datu aldatzean, mezu elektronikoki bat jasoko duzu automatikoki; horretan adieraziko da zure jarduera turistikoaren datuak berrikusi dituzula eta datu horiek nola gelditzen diren Nafarroako Gobernuaren turismoko datu-baseetan.

NOLA LORTZEN AHAL DUT TXOSTENA?

Turismo-jardueraren eta titularraren harremanetarako datuak balidatu edo eguneratu ondoren soilik eskuratzen ahalko duzu txostena.

Jardueraren fitxan, goian, eskuinaldean dagoen “eskuratu txostena” botoia sakatuta, zuzenean sartuko gara aukeraturako jardueraren txostenera. Hainbat orrialdeko dokumentua da, eta, bertan, agertzen da noiz eskuratu dugun txostena eta noizkoa den azken aldaketa.

Era berean, txostenean honako datu hauek ikus daitezke: jarduera turistikoa identifikatzeko datuak, harremanetarako datuak, jarduera horretarako kalitate-ziurtagiririk baden, irisgarritasuna, erlazionatutako pertsonak, eta bestelako datu batzuk segun eta zein den jarduera turistikoa.

Izapideak aukera ematen du, txostena inprimatzeaz gain, pdf fitxategi gisa deskargatu eta ekipoa gordetzeko, euskarri digitalean.

NOLA ALDATZEN AHAL DITUT BESTELAKO DATUAK?

Titularraren edo turismo-jardueraren harremanetarako datuak ez diren bestelako datuak aldatzeko, izapidetze elektronikoa egin dezakezu turismo-jardueraren fitxan bertan dagoen “Turismo erregistroa” estekaren bidez. Izapide horretan, honako hauek eskatzeko behar diren agiriak eskuratzen ahalko dituzu: titularraren aldatzea, izen komertziala aldatzea, edukiera aldatzea (ostatua bada), aldi baterako edo behin betiko eteteko eskaera eta beste eskaera batzuk.

BUKATZEKO...

Bukatzeko, komenigarria da saioa ixtea, batez ere besteren gailu bat erabiltzen bada; horretarako, klik egin jardueraren turistikoaren zerrendaren pantailaren goialdean, eskuinean, dagoen botoi gorrian.